

Friedrich DÜRRENMATT

IDOIA SANTAMARÍA URKAREGI



Epailea eta haren borreroa

L I T T E R A T U R A U N I B E R T S A L A

erein & igela

FRIEDRICH DÜRRENMATT

*Epailea
eta haren borreroa*

Idoia Santamaría Urkaregi

Itzultzailea

erein & *igela*

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Jatorrizko izenburua:
DER RICHTER UND SEIN HENKER

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako bitzarmenaren barruan burutu da.

Lehen argitaraldia, 1952an

©1986, Diogenes Verlag AG Zürich

Eskubide guztiak erresalbatuta

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

© Itzulpenarena: 2018, Idoia Santamaría Urkaregi

© Hitzaurrearena: 2018, Idoia Santamaría Urkaregi

© Argitalpen honena: 2018, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-262-9

Legezko Gordailua: SS-382/2018



FRIEDRICH DÜRRENMATT (1921-1990)

HITZAURREA

Friedrich Dürrenmatt Suitzako idazlerik ezagunenetako bat dugu, Max Frischekin batera. Dürrenmatt antzezlanek egin dute ezagun batik bat literaturan. *Adineko damaren bisita*¹ (*Der Besuch der alten Dame*, 1956) eta *Fisikariak* (*Die Physiker*, 1962), esaterako, behin eta berriz antzezten dira oraindik ere Europako antzoki nagusietan, eta Bertolt Brecht alemaniar dramaturgo ospetsuaren lanekin alderatu izan dira antzezlanok.² Baina, antzerkiaz gainera, beste

- 1 Armiarmaren webguneko «Euskarari ekarriak» atalean (<http://ekarriak.armiarma.eus/>) jasotako euskarazko izenburu bera erabili dut hemen (Wikipedian, bitara ageri da: *Adineko damaren bisita* eta *Dama zabarraren bisita*). Dürrenmatten beste bi lanen izenburua, baina, aldatu egin dut. Armiarmak *Fisikoak* izenburuaz ematen duenari *Fisikariak* deitu diot nik, egokiagoa delakoan. *Epaillea eta borreroa* deitzen duena, berriz, *Epaillea eta haren borreroa* itzuli dut nik.
- 2 Bertolt Brechten antzezlanen pare jartzen dituzte aditu asko Dürrenmatten lanak. Walter Jens Tübingeneko Unibertsitateko irakasleak, kasurako, hitz hauekin hasi zuen Dürrenmatten lanei buruzko hitzaldi bat 1958an, hau da, Brecht hil eta handik bi urtera: «Brecht berdingabearen heriotzaren ondoren, Dürrenmatt dugu alemanezko antzerkigilerik handiena». Hans Weigel austriar idazle eta antzerki-kritikariak, berriz, honela zioen 1976an: «Nire ustez, Dürrenmatt da dugun Brecht onena» (bi artikulua hauetan jasota daude bi aipuok: Walter Jens, «Ernst gemacht mit der Komödie. Über Mord, Moral und Friedrich Dürrenmatt», 1958; Hans

genero askotako lanak ere idatzi zituen Dürrenmattek: besteak beste, nobela beltzak, saiakerak, kritikak, istorio laburrak eta entzuteko istorioak (azkenok, *Hörspiele* izenez, arrakasta handikoak Alemanian eta beste herrialde germanofonoetan).

Lan horietatik guztietatik, hiru ditugu, orain arte, euskarara ekarriak (Armiarmaren webgunean datoz hirurak): bi antzezlan –entzuteko istorio gisa ere argitaratuak– eta istorio labur bat. Lehenengo antzezlan, *Gizona eta kidea* (*Der Doppelgänger*, 1960), Egan aldizkarian argitaratu zen, 1963an, Antonio Maria Labaienek itzulia. Hurrena, *Matxura* (*Die Panne*, 1956) istorio laburra kaleratu zen, 1992an, Bartleby bilduman (Erein), Xabier Mendigurenek euskaratua. Azkenik, 1999an, *Hizketaldia gaeuz gizon arbuia* (*Nächtliches Gespräch mit einem verachteten Menschen*, 1952) antzezlan laburra itzuli zuen Labayru ikastegiak *Zubizabal* aldizkarirako.

Dürrenmattekin batera, Max Frisch eta Bertolt Brecht ere aipatu ditugunez, koka ditzagun hirurak denboran lehenik eta behin, errazago ulertzeko hiruren arteko harremana: Brecht da hiruretan zaharrena (1898-1956); Frisch da hurrengoa (1911-1991) eta Dürrenmatt gazteena (1921-1990). Hirurek ezagutu zuten elkar, eta, nahiz eta ez etorri bat arteak eta literaturak gizartean behar zuten funtzio eta lekuaz –Brechték artisten gizartearekiko atxikimendua defendatzen zuen; Frisch eta Dürrenmatt,

Weigel, «Apropos Dürrenmatt. Zwei kleine Bücher über einen grossen Zeitgenossen», 1976. Iturria: *Über Friedrich Dürrenmatt*, Diogenes, Zürich, 1998, 39. or. eta 435. or.).

berriz, eszeptikoago izan ziren beti—, ezin ukatuzkoa da Brechten lanak Dürrenmatten eta Frischen idazlanetan izan zuen eragin sakona. Dürrenmattek, hala ere, ez zuen sinesten gizakiak mundua alda zezakeenik, eta berarentzat ez zegoen ezer finkorik, segururik, ezta errealitatea bera ere. Zalantza du beti oinarri nagusi, eta abiapuntu osasun-garrizat jotzen du eztabaida orotarako:

Zalantza albo batera uztea litekeen bidegabekeriarik handiena da. Ez dakit garbi azaldu dudana: ni zalantzata naiz, eta zalantza egiten dut beti, beti zalantza, etengabe.³

Alderdi politikoen, taldeen eta ideologiaren eraginaz egiten du zalantza batik bat Dürrenmattek. Haien aurrean, norbanakoa dugu, norberarekiko erantzukizuna duen gizabanakoa.⁴ Eta Dürrenmattek gizartea erakusten du ez ideologo baten edo mundua aldatu nahi duen pedagogo baten gisara, berak ikusten duen moduan baizik, kontraesan, egoera zentzugabe, delitu eta guzti:

Gizakiak ustelezintzat jotzen dituen politikak porrot egingo du ezinbestean. Ustelkeria egitate ukaezin bat da —ikusi besterik ez dago gaur egun bizitza publikoan, ekonomian, politikan, baita kultura-arloan ere.⁵

3 Heinrich Goertz, *Dürrenmatt*, Rowohlt, 2011, 9. or. (Jatorrizko aipua: *Gespräch mit Heinz Ludwig Arnold*, Diogenes, Zürich, 1976).

4 *Epaiilea eta haren borroka* liburuan ere badu lekurik, eta ez txikia, norbanakoaren erantzukizunaren gaiak.

5 Heinrich Goertz, *Dürrenmatt*, Rowohlt, 2011, 9. or. (Jatorrizko aipua: *Gespräch mit Heinz Ludwig Arnold*, Diogenes, Zürich, 1976).

Hasieran esan dugunez, antzerkian ez ezik, beste genero batzuetan barrena ere abiatu zen Dürrenmatt. Horietakoa bat nobela beltza da, eta *Epailea eta baren borrheroa* dugu (*Der Richter und sein Henker*, 1952⁶) horren adibide; horixe da, hain zuzen, Dürrenmattek idatzi zituen hiru nobela beltzen arteko lehenengoa. Nobela beltz bat idaztea nola otu zitzaion ulertzeko, eman ditzagun aurrena Dürrenmatten biografiari buruzko datu batzuk.

1949ko udan, Dürrenmatten emaztea, Lotti Geissler, ospitaleratu egin behar izan zuten bigarren umearen haurdunaldian izandako osasun-arazo batzuen ondorioz; aldi berean, Dürrenmatten diabetesak okerrera egin zuen, eta ospitalera jo behar izan zuen berak ere. Horrek guztiak diru-gastu handiak eragin zituen, eta, familiarren finantza-egoera kaskarra nolabait onbideratzearren, Dürrenmattek, hainbat argitaletxerekin harremanetan jarri, eta istorio labur bat edo eleberri bat idazteko eskaini zien bere burua. Aurrerakin ugari jaso omen zituen orduan, baina agindutako istoriorik idatzi ez azkenean. Hurrengo urtean, hala ere, eleberri bat atalka argitaratzeko proposamena egin zion *Der Schweizerische Beobachter* egunkariak, eta, horri esker, 500 franko suitzarreko beste aurrerakin bat jaso zuen Dürrenmattek. Hala, azkenean, *Antzerkiaren arazoak* (*Theaterprobleme*) saiakera eta *Mississippi jaunaren*

6 1952an liburu gisa argitaratu aurretik, *Der Schweizerische Beobachter* egunkariak kaleratu zuen, atalka, 1950eko abendutik 1951ko martxora bitartean. Beste bi nobela beltz idatzi zituen Dürrenmattek: *Susmoa* (*Der Verdacht*, 1953; hau ere egunkarian argitaratua lehenik, atalka, 1952an) eta *Agindua* (*Das Versprechen*, 1958).

ezkontza (Die Ehe des Herrn Mississippi) antzezlanaren lehen bi ekitaldiak prestatzen zituen bitartean, *Epailea eta haren borreroa* nobela beltza idatzi zuen, atalka, egunkarirako. Dirua irabaztearren idatzi bazuen ere, maisulan benetakoa da, aditu askoren ustez. Urtebete geroago, liburu gisa argitaratu zen azkenean, egunkarian argitaratutako bertsioari aldaketa batzuk eginda, eta arrakasta handia izan zuen, berehalakoa.

Epailea eta haren borreroa

Gatozen, horrenbestez, hizpide dugun liburura. Hogeita bat kapitulu ditu, luze-labur desberdinekoak. Pertsonaia nagusia Bärlach komisarioa da, 60 urteko polizia eszeptiko bezain buruargi eta indibidualista. Nobela beltz asko bezala, hilotz batekin hasten da hau ere. Baina badu ezaugarri bat nobela beltz ohikoetatik bereizten duena: ustez istorio nagusia dirudienari –hilketa bera eta hilketa argitzeko prozesua– beste istorio batek hartuko dio gaina, nobelak aurrera egin ahala. Hauek dira liburuko beste pertsonaia nagusiak: Tschanz polizia gazte eta Bärlachen laguntzailea, Schmied polizia eraila, eta Gastmann, azken hori Bärlachen ipilu-iruditza har daitekeena.

Suitzan gertatzen dira, 1948ko azaroaren 3tik 8ra bitartean, nobelako pasadizo guztiak; zehazki, Bieleko aintziraren inguruko herrixketan eta Berna hirian. Kokalekua dela eta, badira bi kontu jakingarri. Batetik, nobela beltzetan ohiko diren hiri handietatik urrun gaude hemen. Hau ez da Los Angeles, Raymond Chandlerren Philip Marlowe detektibearen bizilekua, edo Georges

Simenonek sorturiko Jules Maigret komisarioaren Paris, ez eta Sherlock Holmesen Londres ere. Landa-ingurunean murgiltzen gaitu hemen Dürrenmattek, eta herri txikiz ziprztindutako bazter idiliko bateko bizimodu askotan ez hain idilikoari buruzko zertzeladak ematen dizkigu han-hemen. Bestetik, Suitzako Biel inguruko mapa bat hartuko bagenu, ikusiko genuke zehatz-mehatz jarraitzen diela Dürrenmattek inguru horretako izen eta ezaugarri topografiko eta geografikoei. Errealitatetik bere horretan hartuak dira liburuan agertzen diren herri-izenak eta mendi, hiri, ibai eta errepedeen deskribapenak. Izan ere, liburua idatzi zuen garaian, inguru horretantxe bizi zen Dürrenmatt, nobelan aipatzen den Ligerz herrian.

Har dezagun ahotan orain nobela beltzetan maiz agertzen den auzi bat, esku artean dugun eleberrian funtsezkoa dena: ongiaren eta gaizkiaren arteko muga lausoa, pertsonaia zintzoen eta gaiztoen arteko bereizkuntza garbirik eza. Gure Bärlach grina batek bizi du gazte-gaztetatik, eta, hark bultzaturik, bide ezohiko bat aukeratuko du –edo halabeharrez jarraituko hari– beti lortu nahi izan duena behingoz erdiesteko, legea gorabehera. Oso interesgarria da, alde horretatik, Bärlach eta Gastmann pertsonaien arteko harremana, ongiaren eta gaizkiaren arteko mugaren josturak hausten baititu (bestalde, izenburuaren esanahia ulertzeko ere balio du kontu horrek).

Dürrenmatten geroagoko lanetan azalduko diren beste zenbait ezaugarri ageri dira dagoeneko gure nobelan: horietako bat Suitzari eta, bereziki, haren ustezko neutraltasun

politikoari egiten zaion kritika, ironiaz betea beti. Bärlach aurkezten zaigunean, adibidez, jakingo dugu 1933an Bernara itzuli aurretik Frankfurt am Maineko poliziaburu izan zela eta, hain zuzen, garai hartako Alemaniako gobernu berriko goi-funtzionario batekin izandako arazo baten ondorioz itzuli zela Bernara:

Atzerrian bizi izan zen Bärlach urte askoan, eta kriminalista ezagun bihurtu Konstantinoplan lehenengo eta Alemanian gero. Azkenik, Frankfurt am Maineko polizia kriminalaren buru izan zen, baina 1933rako jaioterrira itzulia zen atzera. Bernara itzultzeko arrazoia, baina, ez zen izan jaioterriari zion maitasun sutsua —bere «urrezko hilobi» esaten zion maiz—, baizik eta Alemaniako gobernu berriko goi-funtzionario bati eman zion belarrondoko bat. Asko hitz egin zen garai hartan Frankfurten oldarraldi hartaz; Bernan, berriz, Europako politikaren uneko egoeraren arabera epaitu zen gertaera: lehenengo, ekintza amorragarri gisa; gero, egite gaitzesgarri baina ulergarri gisa, eta, azkenik, suitzar batek izan zezakeen jarrera duin bakar gisa. Azken hori, baina, 1945ean, ez lehenago (*Epailea eta haren borroera*, 1. kap.).

Aintzat hartu behar dugu Dürrenmattek *Epailea eta haren borroera* idatzi zuenean (1950-1951, egunkarian argitaratu zenean) urte gutxi joanak zirela artean Bigarren Mundu Gerra amaituz geroztik. Nahiz eta Alemania, iragana atzean utzi nahian, «mirari ekonomiko»aren garaian murgilduta zegoen, handia zen oraindik ere erregimen naziaren oihartzuna, eta hari buruzko aipamenak tartekatzen

ditu Dürrenmattek han-hemen liburuan. Politikariez hitz egitean, kasurako, ironia eta karikatura darabiltza –Dürrenmatten beste dohain bat– ustelkeria eta, aldi berean, hutsalakeria mahaigaineratzeko.

Jakin nahi nikek behingoz zer dela-eta leporatzen diozuen nire Gastmann prestuari Schmied horri gertatutakoa. Jurako paraje galdu haietako gorabeherak bost axola zaizkiok poliziari. Nik dakidala, aspaldi bukatu zituan gurean, ezta?, Gestaporen lanak (*Epailea eta haren borrheroa*, 8. kap.).

Dürrenmatten lanen beste bereizgarri bat alderdi groteskoak nabarmentzeko joera da. Alemaniako literatura espresionistaren eragina ikusten dute hor aditu batzuek (Kafka, Rilke nahiz Brechten eragina, adibidez). Deskribapenetan nabarmentzen da hori batez ere, errealitatearen deskribapena elementu ezohikoz eta, zenbaitetan, neurritz kanpokoz ziprizzintzen duenean, kontakizunari itxura barregarri eta, aldi berean, mingarria emanez. Horren adibide dira, esate baterako, hilotza aurkitzen duen poliziak gorpua hirira nola eramaten duen deskribatzen duen pasarte eta hildakoaren ehorzketari buruzko xehetasunak ematen dituen:

Auto ilara luze baten erdian zegoen Clenin; bata bestearen atzetik autoak, lainoak eskatu baino motelago gidatzen denak, auskalo zergatik. Segizio bat kasik, bururatu zitzaion Clenini nahi gabe. Ondoan zuen hilotza, geldigeldi, salbu eta bideko gorabeheraren batek eraginda buruarekin baietz egiten zuenean, txinatar jakintsu zahar bat balitz bezala (*Epailea eta haren borrheroa*, 1. kap.).

Hilarriak eta gurutzeak atzean utzi, eta obra-eremu batera iritsiak zirela zirudien. Lurra, hilobi zulatu berriz beteta, eta lurraren gainean, ohol batzuk. Belar bustiaren hezetasuna oinetakoetan sartzen zen, eta lur lokaztua itsasten zitzaien. Leku haren erdian, oraindik hutsik zeuden eta euriak putzu sakon uherrez betetzen zituen hilobi haien artean, zurezko gurutze behin-behinekoen eta lore eta koroa zimelerrazek estalitako lur-tontorren artean, laguntalde bat ageri zen, hobi baten inguruan, zutik. [...] Haren ondoan, aterki bati eutsiz biok babesteko moduan, ehorzlea, frak itxurako laneko jantzi barregarri bat soinean, eta hotzaren hotzez gorputza lehenengo hanka baten eta gero bestearen gainean bermatuz, txandaka. (*Epailea eta haren borreroa*, 10. kap.).

Dürrenmatten lanetan, bestalde, beti agertzen da ustekabeak arrazoimenaren logika hausteko duen indarra –gai garrantzitsua, inondik ere, nobela honetan, ustekabe batek ekarriko baitu lehen planora liburuko istorio nagusia–. Eta ustekabearekin loturik ageri dira maiz, orobat, errua eta norbanakoaren erantzukizuna, Dürrenmatten dilema filosofikoaren ardatzetako bi. Bärlach eta Gastmannen arteko harremanean, esaterako, funtsezkoak dira ezaugarriok, eta irakurleari aurrez aurre jarri nahi dizkion galderak azalertzeko balio diote idazleari:

–Ezin diagu amaitu gure jokoa –erantzun zuen Bärlachek azkenean–. Turkiako gau hartan, errudun bihurtu hintzen, Gastmann, apustua proposatzean, eta ni, berriz, hura onartzean (*Epailea eta haren borreroa*, 17. kap.).

Bestalde, bada beste motibo materialago bat Dürrenmatten lan askotan sinbolo gisa ageri dena: jana eta edana. Ospakizun gisa hasten diren oturuntzak dira maiz; gero, baina, mehatxu arriskutsu bihurtzen dira. Horixe gertatzen da *Matxura* istorio laburreko «gau-txolarteetan»⁷, esaterako, eta berdin eleberri honetan ere, Bärlachek bere etxera afaltzera joateko gonbita egiten diolarik Tschanzi:

Bigarren ardo gorri kopa hustu, eta hirugarren enpanada jaten hasi zen, atsedetik hartu gabe, jan eta jan, munduko janari guztiak irentsiz, masailezurrekin txikituz, gose aseezina enpo egin arte janez ase nahi lukeen deabru bat balitz bezala. Kandelen argipean, horman proiektatzen zen beraren itzala, halako bi handitua: besoen mugimendu indartsuek eta buru makurtu hark afrikar tribu bateko buruzagi baten garaipen-dantza ziruditen. Tschanzek izu-laborriak harturik begiratzen zion... (*Epailea eta haren borreroa*, 20. kap.).

Pertsonaien artean, bada bat nagusia ez izan arren esanguratsua dena, Dürrenmattek bere buruaren erretratu ironikoa egiteko baliatzen baitu: idazlea (ez du beste izenik, «idazlea»). Liburuko hilketa argitzeko ahaleaginean, idazle baten etxera joango dira Bärlach eta Tschanz, harekin hitz egitera, eta haren erretratu gupidagabea egiten du Dürrenmattek: berekoia, handinahia, oiesa eta jaki goxo zalea:

7 Hala esaten die Xabier Mendigurenek istorioko pertsonaietako baten etxean antolatzen diren epaiketa-antzezpenei (Jatorrizkoan: «Herrenabend»): <http://ekarriak.armiarma.eus/?i=297>.

Bärlachek idazleen harrokeria ohikotzat jo zuen jarrera hura, serioski hartua izateko behar betierekotzat (*Epailea eta haren borreroa*, 13. kap.).

Liburuaren ezaugarriekin amaitzeko, hitz bi esan nahi nituzke Dürrenmatten hizkuntza eta estiloaz. Suitzako alemana aldaera markatu samarra da, aleman estandarretik bereizten dituen elementu ugari dituen, fonetikoak bereiziki. Hala ere, Dürrenmattek ez darabil elementu linguistiko bereizgarri aipagarririk idazkeran, eta, haien ordez, bestela erakusten dio irakurleari Suitzan gertatzen dela irakurtzen ari dena: batetik, aipu geografiko ugari daude, gertaerak zehatz-mehatz kokatzeko balio dutenak, esan dugun bezala. Bestetik, Suitzaren antolaketa administratiboarekin loturiko alderdiak ere lagungarri dira zenbaitetan gertakarien espazio geografikoa zedarritzeko: parlamentu federalaren eta fiskal federalaren aipamena, pertsonaietako biren alderdi politikoaren aipamena... Horrez gainera, Suitzaren eleaniztasuna erakusten duen pasarte bat ere bada liburuan, ikerketan parte hartzen duen polizietako batek frantsesa baitu hizkuntza nagusi, eta ez alemana (toponimo batean ere agertzen da eleaniztasuna, bi modutara aipatzen baita: Lamboing, frantsesez; Lamlingen, alemanez):

Biekin batera eseri zen Tschanz, eta laster desagertu zen herriko bi poliziek Bernako lankidearekiko hasieran erakutsitako mesfidantza. Charneli, hala ere, ez zitzaion askorik gustatu alemanez hitz egin beharra frantsesez jarraitu ordez, ez baitzen eroso sentitzen hizkuntza horretan (*Epailea eta haren borreroa*, 6. kap.).

Estiloari dagokionez, berriz, hipotaxia da Dürrenmatten idazkeraren ezaugarrietako bat; mendeko esaldiak bata bestearen atzetik lotzeko joera, alegia. Horrekin batera, elipsi, enumerazio eta tarteki ugari erabiltzen ditu, azaltzen ari denaren hari-mutur guztiak bateratu nahian edo. Zirtoak, karikaturak eta ironia ere sarri darabiltza, azaldu dugun joeraren ildotik. Batzuetan, iduri luke nobela beltzaren eredua berritu ez ezik generoaren beraren parodia ere egin nahi duela.

Hitz bi baino ez itzulpenaz. Nire hitzak erabili ordez, Gerardo Markuletari ebatsiko dizkiot bereak Françoise Saganen *Tristezia zer berri* eleberri ederraren hitzaurretik (berak «frantses» dioen lekuan nik «aleman» jarrita), ezin hobeto adierazten baitute itzultzailearen ahalegina eta ezina:

Itzultzailearen ikuspegitik, jatorrizko testuak arazo handirik gabea dirudi, lehen begiratu batera. *Aleman* literatur hizkeraren berezko izaera, berezitasun, bitxikeria, gorabehera, itzulinguru, zeharbide, zoko-moko, zirrikitu eta apetengatik izan ez balitz, itzulpen lanak ez zukeen zailtasun berezirik izango.⁸

Irakurlearena da hitza orain. Berak esango du zenbate-raino zaizkion atsegingarri Suitzako Biel aintzira ingurutik ekarri dizkiogun euri-erauntsi, eguzki-izpi, bihurtune

8 Françoise Sagan, *Tristezia zer berri*, Erein-Igela, 2014, Literatura Unibertsala bilduma, 162. zk., 11. or. Itzultzailea eta hitzaurrearen egilea: Gerardo Markuleta. (Hitzaurretik hartutako aipu moldatua).

estu, ardo bero, pattar eta datilak. Horiek guztiak gustagarri egiten ahalegindu garela, ezin besterik esan.

Azkenik, desenkusa gisa-edo, Matías Múgicak maisuki itzultitako François Villonen *Testamentuan* jasotako Clément Maroten hitz ederrok ekarri nahi ditut hona:

Eta inork menturaz esan nahi badu dena ez dagoela behar bezala adabatua, erantzungo diot bertatik [...] ez dagoela halako zirujau abilik orban-arrastorik utzi gabe senda zezakeenik.⁹

Nik, hala ere, zorte handia izan dut, sekulakoa, «zirujau» abil bezain zailduak izan baititut bidaide. Izan ere, itzultzea ez da sekula bakarlana, eta zor handia dut, oso-oso handia, itzulpen hau egiten lagundu didaten adiskide eta maisuokin: eskerrik asko, bihotz-bihotzez, zuzenketa-, aholkularitza- eta akuilu-lanengatik, Juan Garziari, Iñigo Roqueri eta Xabier Olarrari. Baita Patxi Petrirena lankide eta adiskideari ere, hitzaurreari egin dizkion zuzenketa eta oharrengatik. Eta Beñat Sarasolari, bere iruzkin beti zorrotz eta jakingarriengatik.

Idoia Santamaría Urkaregi

9 François Villon, *Testamentua*, Erein-Igela, 2016, Literatura Unibertsala bilduma, 168. zk., 40. or. Itzultzailea: Matías Múgica.

FRIEDRICH DÜRRENMATT



Epailea
eta haren borrreroa

1948KO AZAROAREN 3AN, goizean, Alphons Clenin Twanneko poliziak Mercedes urdin bat aurkitu zuen errepide-bazter batean, geldi, Lamboingeko errepidea (Tessenbergeko herrietako bat da Lamboing) Twannbacheko trokarteko basotik ateratzen den horretan. Laino zegoen, udazken berantiar hartan maiz gertatu ohi zen bezala, eta, nahiz eta ordurako atzean utzia zuen Cleninek autoa, atzera egitea erabaki zuen. Autoaren ondotik pasatzean istant batez leiho uherretatik barrurantz begiratu zuenean, iruditu zitzaion bolantearen gainean makurtua zeukala gidariak burua. Zentzudun eta ordenazalea izanik, mozkorrik egongo zela pentsatu zuen Cleninek, huraxe otu baitzitzaion aukerarik bistakoena. Horregatik, herritar gisa hurbildu nahi izan zuen kanpotar harengana, ez polizia-funtzionario gisa. Gizona esnatzeko asmoz gerturatu zen autora, handik Twannera eraman eta, han, Bären hotelean suspertzen laguntzarren, kafe huts bat eta semola-zopa bat lagun. Izan ere, debekatua zegoen edanda gidatzea; ez, hala ere, hordirik auto batean lo egitea errepide bazterrean. Cleninek, autoko atea ireki, eta ezezagunaren sorbaldaren gainean jarri zuen eskua, aita batek bezala. Baina une hartantxe ohartu zen gizon hura hila zegoela. Bala batek zeharkatuak zizkion lokiak. Orduan konturatu zen, halaber, zabalik zegoela autoko eskuineko atea. Ez zen

odol askorik ageri autoan, eta gorpuak soinean zeraman beroki gris ilunean ere ez zen ikusten arrastorik. Berokiaren sakelatik, diru-zorro hori baten ertza ageri zen, dirdaitsu. Hura hartu, eta bertatik jakin zuen Cleninek Ulrich Schmied zuela izena hildakoak eta polizia-tenientea zela Bernan.

Ez zekien zer egin. Herri txiki bateko polizia izanik, ez zitzaion sekula egokitu parean halako afera odoltsu bat. Atzera eta aurrera zebilen errepede-bazterrean. Eguzki atera berriak lainoa urratu eta gorpua argitu zuenean, deseroso egin zitzaion. Autora itzuli zen; hildakoaren oinetan zegoen feltrozko kapela grisa jaso, eta buruan jarri zion, eta hondoratu ere bai, lokietako zauria estalia geratu arte. Hobeto sentitu zen orduan.

Errepedearen beste aldera jo zuen berriz, Twann aldera ematen zuenera, bekokiko izerdia lehortu, eta erabaki bat hartu zuen. Autoaren aurrealdeko beste eserlekura bultzatu hildakoa, eta zuzen eseri zuen; kontu handiz, autoan aurkitutako larruzko gerriko batekin eutsi gorputz bizigabe hari, eta gidariaren lekuan eseri zen bera.

Motorra ez zen martxan jarri, baina Cleninek erraz gidatu zuen autoa maldan behera Twannerantz, Bären hoteleraino. Gasolina hartu zuen han, eta inork ez zuen hildakotzat hartu figura dotore mugimendurik gabeko hura. Cleninentzat hura zen gauzak egiteko era zuzen bakarra, gorroto baitzuen eskandalua; ez zuen, beraz, txintik ere esan.

Aintziraren ertzetik Bielerantz zihoala, baina, berriz itxi zen lainoa, eta erabat desagertu lehen ikusitako

eguzkia. Azken judizioko egunak bezain itxura iluna hartu zuen goizak. Auto ilara luze baten erdian zegoen Clenin; bata bestearen atzetik autoak, lainoak eskatu baino motelago gidatzen denak, auskalo zergatik. Segizio bat kasik, bururatu zitzaion Clenini nahi gabe. Ondoan zuen hilotza, geldi-geldi, salbu eta bideko gorabeheraren batek eraginda buruarekin baietz egiten zuenean, txinatar jakintsu zahar bat balitz bezala. Horregatik, gero eta gutxiagotan ausartzzen zen Clenin beste autoak aurreratzeraz, eta espero baino askoz beranduago iritsi ziren Bielera.

Bielen Schmiedi gertatutakoa ikertzen hastearekin batera, gertakari zoritxarrekoaren berri eman zioten Bernan Bärlach komisarioari, zeina hildakoaren nagusi izana baitzen.

Atzerrian bizi izan zen Bärlach urte askoan, eta kriminalista ezagun bihurtu Konstantinoplan lehenengo eta Alemanian gero. Azkenik, Frankfurt am Maineko polizia kriminalaren buru izan zen, baina 1933rako jaioterrira itzulia zen atzera. Bernara itzultzeko arrazoia, baina, ez zen izan jaioterriari zion maitasun sutsua —bere «urrezko hilobi» esaten zion maiz—, baizik eta Alemaniako gobernu berriko goi-funtzionario bati eman zion belarrondoko bat. Asko hitz egin zen garai hartan Frankfurten oldarraldi hartaz; Bernan, berriz, Europako politikaren uneko egoeraren arabera epaitu zen gertaera: lehenengo, ekintza amorragarri gisa; gero, egite gaitzesgarri baina ulergarri gisa, eta, azkenik, suitzar batek izan zezakeen jarrera duin bakar gisa. Azken hori, baina, 1945ean, ez lehenago.

Bärlachek Schmieden kasuan hartu zuen lehenengo erabakia zera izan zen: agintzea isilpean edukitzeko kontua lehenengo egunetan; eta ahalegin handia egin behar izan zuen, bere ospe eta nortasuna baliaturik, agindu hori bete zedin. «Gutxiegi dakigu oraindik, eta azken bi mila urteetan asmatu den gauzarik azalekoena dira egunkariak», esan zuen.

Itxuraz, asko espero zuen Bärlachek isilpeko lanetik; ez, ordea, «nagusi» zuen Lucius Lutz doktoreak, zeinak kriminologia irakasten baitzuen unibertsitatean. Funtzionario hura, Basileako ahaide baten eskuzabaltasunari esker aberastutako Bernako antzinako familia bateko semea, iritsi berria zen Bernara New Yorkeko eta Chicagoko polizien lana ezagutzeko hara egindako bisitaldi batetik, eta asaldatuta zegoen «Suitzako hiriburuak delituei aurre egiteko zuen egoera prehistorikoa» zela eta; eta halaxe esan zion, argi eta garbi, Freiburger polizia-zuzendariari, biak tranbian etxerantz zihoazela.

GOIZ HARTAN BERTAN, Bielera berriz deitu ondoren, Schönler familiarenera jo zuen Bärlachek, Bantigerstrassera, han bizi izan baitzen Schmied. Ohi bezala, oinez jaitsi alde zaharrea barrera, eta Nydegg zubia zeharkatu zuen gero; hala zegoen ohituta bera, hiri txikiegia baitzen Berna, beraren ustez, «tranbiak eta halakoak» izateko.

Gehiago kosta zitzaion, ordea, Haspeleko eskailerak igotzea, hirurogei urte beteak izanik halakoetan nabaritzen

baitzuen adina; laster iritsi zen, baina, Schönler familiaren etxe aurrera, eta txirrina jo zuen.

Schönler andreak berak ireki zuen atea, emakume txiki, lodi eta halako dotoreziadunak, eta sartzeko gonbita egin zion berehala Bärlachi, lehendik ezagutzen baitzuen.

–Schmiedek lanera joan behar izan zuen bart –esan zion Bärlachek–; bat-batean atera behar izan zuen, eta eskatu dit gauza batzuk bidaltzeko. Beraz, haren gelara sartu behar dut, Schönler andrea.

Emakumeak baietz egin zuen buruarekin, eta korridorean barrena abiatu ziren biak, non koadro handi bat baitzegoen, urre-koloreko marko batean. Hari begira gelditu zen Bärlach: *Hildakoen ubartea* zen.

–Nora joan da, bada, Schmied jauna? –galdetu zuen emakume lodikoteak, gelako atea irekiaz batera.

–Atzerrira –Bärlachek, sabairantz begira.

Beheko solairuan zegoen gela; lorategiko atetik, parke txiki bat ikusten zen, non izei zahar ilun batzuk baitzeuden, gaixorik ziur asko, pinu-orratzez guztiz estalita baitzegoen lurra. Etxeko gelarik politena behar zuen hark. Bärlachek, idazmahaira hurbildu, eta ingurura begiratu zuen berriz. Sofaren gainean, hildakoaren gorbata bat zegoen.

–Schmied jauna tropikora joango zen, seguru asko, ezta, Bärlach jauna? –galdetu zion Schönler andreak, jakin-minez. Bärlach, hura entzunda, izutu egin zen ia:

–Ez, ez da joan tropikora. Gorago, egia esan.

Schönler andreak, begiak zabal-zabalik, txalo egin zuen eskuak buru gainean jarrita:

–Jainko maitea, Himalaiara?

–Gutxi gorabehera, bai –Bärlachek–; hortxe-hortxe, ia asmatu duzu.

Idazmahai gainean zegoen karpeta bat ireki, eta besapean hartu zuen berehala.

–Aurkitu duzu Schmied jaunari bidali behar diozuna?

–Aurkitu dut, bai.

Beste begiratu bat eman zion gelari, baina gorbatari berriz ez begiratzen saiatu zen.

–Sekula izan dugun maizterrik onena da; emakume-konturik edo halakorik ez da sekula izan hemen –baietsi zuen Schönler andreak.

Aterantz egin zuen Bärlachek orduan:

–Funtzionarioen bat bidaliko dut tarteka, edo ni neu etorriko naiz atzera. Dokumentu garrantzitsu gehiago ditu hemen Schmiedek, eta akaso beharko ditugu.

–Bidaliko al dit Schmied jaunak postal bat atzerri-tik? –jarraitu zuen galdezka Schönler andreak–. Zigilubilduma egiten du semeak.

Bärlachek, baina, beltzuri eta atsekabetuta, serios begiratuz Schönler andreari:

–Zaila izango da, jendeak ez baitu postalik bidaltzen halako lan-bidaietatik. Debekatuta dago.

Schönler andreak, orduan, besoak jaso eta txalo egin zuen berriz. Eta etsi-etsian bota:

–Zer ez ote du debekatuko poliziak!

Kalera atera zen Bärlach azkenik, kontent, etxe hartatik aldentzeagatik.

BERE PENTSAMENDUETAN MURGILDUTA, ez zuen bazkaldu, ohi bezala, Schmiedstuben, Du Théâtren baizik, Schmieden gelatik hartutako karpetako orriak begiratzen eta arretaz irakurtzen zituelarik; gero, Bundesterrassen pasealditxo bat egin ostean, bulegora itzuli zen ordu biak aldera. Schmieden gorpua iritsi berria zela Bieletik esan zioten han. Uko egin zion, hala ere, bere manukoa izandakoari bisita egiteari, ez baitzituen maite hildakoak eta, beraz, bakean uzten baitzituen gehien-gehienetan. Gustura egingo zion uko, halaber, Lutzengana joateari, baina hari ezin zion ihes egin. Kontu handiz, idazmahaian gorde zuen, giltzapean, Schmieden karpeta, berriz begiratu gabe; puru bat piztu, eta Lutzen bulegora joan zen, ondo baino hobeto jakinik Lutzi amorragarri zitzaiola Bärlach zaharrak puruak erretzeko hartzen zuen libertate hura. Behin bakarrik ausartu zen Lutz, urte asko lehenago, ohitura hari buruzko zerbait esatera, baina destaina-keinu batez erantzun zion orduan Bärlachek, eskuarekin, eta esan zion hamar urte egin zituela, besteak beste, turkiar administrazioarentzat lanean eta beti erre izan zuela nagusien bulegoetan, Konstantinoplan; erantzun mingarria inondik ere, inoiz ez baitzen izan hura egiaztatzeko modurik.

LUCIUS LUTZ DOKTOREA urduri hartu zuen Bärlach, haren iritziz oraindik ez baitzen ezertxo ere egin, eta idazmahaia-
ren ondoko besaulki eroso bat seinalatu zion Bärlachi.

–Berririk ez Bieletik? –galdetu zuen Bärlachek.

–Oraindik ez –Lutzek.

–Harrigarria –Bärlachek orduan–, jo eta su ari baitira
han lanean.

Eseri, eta hormako Traffeleten koadroei begiratu zien
istant batez Bärlachek; lumaz egindako marrazkiak ziren,
margotuak, non soldadu-taldeak ageri baitziren –jeneral
eta guzti batzuk, beste batzuk gabe– urratsa markatuz,
ezkerretik eskuinerantz edo eskuinetik ezkererantz, hai-
zetaratutako bandera handi bat gidari.

–Beste behin egiaztatu da –hasi zen Lutz–, gero eta
kezka eta beldur handiagoz egiaztatu ere, hasi-masietan
baino ez dagoela kriminologia herrialde honetan. Gau-
za askorekin ohitua nago gure kantoian honetan, ohitua
nagoenez, baina ikusirik prozedura honek (hemen itxu-
raz naturala polizia-teniente baten hilketaren aurrean)
zenbateraino jartzen duen kolokan gure landa-poliziaren
profesionaltasuna, ikaratuta nago, benetan ikaratuta.

–Lasai, Lutz doktorea –erantzun zuen Bärlachek–,
gure landa-poliziak Chicagoko poliziaren pare dihardu
bere egitekoan, eta laster jakingo dugu nork hil duen
Schmied.

–Norbaiti buruzko susmorik, Bärlach?

Bärlachek luze begiratu zion, eta, azkenean:

–Bai, badut susmo bat.

–Nori buruzkoa?

–Ezin dizut esan oraindak.

–Tira, bada, interesgarria da hori –esan zuen Lutzek–. Badakit zu, Bärlach, prest zaudela beti ontzat emateko kriminologia zientifiko modernoaren aurrerapenen aurkako hutsegite oro. Alabaina, ez ahaztu denborak aurrera egiten duela etengabe eta kriminalistarik handienaren aurrean ere ez dela gelditzen. New Yorken edo Chicagon ikusiak ditut makina bat krimen zuk gure Berna maite honetan irudikatu ere ezingo zenituzkeenak. Orain, ordea, polizia-teniente bat hil dute, argi eta garbi erakutsiz hemen ere pitzatzen hasiak direla segurtasun publikoaren eraikinaren hormak; eta horrek, dudarik gabe, begiramen handirik gabeko neurriak eskatzen ditu.

Jakina, hori zela bera egiten ari zena, Bärlachek.

Primeran orduan, pozten zela, ihardetsi zion Lutzek. Eta ez tul egin zuen.

Hormako erlojuaren tiki-taka entzuten zen.

Bärlachek urdailaren gainean pausatu zuen, kontu handiz, ezkerreko eskua, eta eskuinekoarekin, purua itzali, Lutzek gerturatu zion hautsontzian. Esan zuen aspaldian pattal zebilela eta medikua behintzat kezkatzen hasia zuela; urdaileko arazoak izaten zituela maiz, eta horregatik eskatzen zion Lutz doktoareari ordezeko bat jartzeko Schmieden kasuaren ardura nagusia beretzeko gai izango zena, berak nahiago zuela idazmahaitik aritu kasuarekin. Ados agertu zen Lutz.

–Nor duzu buruan ordezeko gisa? –galdetu zion.

–Tschanz –esan zuen Bärlachek–. Oporretan da oraindik Bernako Oberlanden, baina itzultzeko eska die-zaiokegu.

–Ados –Lutzek orduan–. Kriminologia-gaietako azken aurrerapenen berri izaten saiatzen diren horietakoa da Tschanz.

Bizkarra eman zion orduan Bärlachi, eta leihotik begira gelditu zen Waisenhausplatz une hartan haurrez betera.

Bat-batean, gogo eutsiezin bat sentitu zuen kriminologia zientifiko modernoaren balioari buruz eztabaidatzeko Bärlachekin. Jiratu zenerako, ordea, aldendua zen.

NAHIZ ETA IA BOSTAK BAZIREN ORDURAKO, Bärlachek erabaki zuen arratsalde hartan bertan Twannera joatea, gertakarien lekura. Blatter eraman zuen berekin, polizia handi eta lodikote bat, sekula hitzik egiten ez zuena –horrexegatik maite zuen Bärlachek– eta, gainera, autoa gidatzen zuena. Twannen, zain zeukaten Clenin, desafiozko-edo aurpegiera batekin, errieta egingo ziotela espero baitzuen. Komisarioak, ordea, lagunkoi agurtu zuen, eskua emanaz, eta esan zion pozten zela bere kabuz pentsatzeko gai zen gizon baten ezaguera egiteaz. Harrotasunez entzun zituen hitzok Cleninek, nahiz eta ez jakin ziur zer esan nahi zuen horrekin agureak. Tessenbergetik gora, gertakarien lekura eraman zuen Bärlach, zeina atzetik baitzihoakion, trostan, haserre, oinez joan behar zuelako.

Bärlach harritu egin zen Lamboing izena entzun zuenean.

–Alemanez, Lamlingen da –azaldu zion Cleninek.

–A, tira –esan zuen orduan Bärlachek–, politago halaxe.

Iritsi ziren gertakarien lekura. Eskuinaldean, Twanneren ematen zuen errepidea, harresi batek inguratua.

–Non zegoen autoa, Clenin?

–Hemen –poliziak, errepidea seinalatuz–, errepideerdian kasik.

Eta Bärlachek hara begiratu ere egin ez zuenez ia:

–Beharbada bere horretan utzi behar nituzkeen autoa eta hildakoa, ezer mugitu gabe.

–Zergatik? –galdetu zuen Bärlachek, Jura mendiguneko tontorrei begira–. Hobe hildakoak paretik lehenbailehen kentzea, ez baitute beste egitekorik gure artean. Ondo egin zenuen Schmied Bieleraino eramanda.

Bärlachek, errepide-ertzera hurbildu, eta beherantz begiratu zuen, Twannerantz. Mahastiak, mahastiak besterik ez beraren eta antzinako herrixkaren artean. Eguzkia sartua zen ordurako. Errepidea, suge baten antzera, sigisaga aurrera etxe artean; geltokian, merkantzia-tren luze bat, geldi.

–Inork ez zuen ezer entzun hor behean, Clenin? –galdetu zuen–. Hemendik oso gertu dago herria; erraz entzungo da tiro bat.

–Inork ez zuen ezer entzun, ez, autoaren motorzurrunga izan ezik, martxan egon baitzen gau guztian, baina inork ez zuen horregatik ezer txarrik pentsatu.